

Zer gertatzen ari da?

(What is happening?)

López Benítez, Ana M^a; Palomo Diaz, Vanessa;
Zubiaur Jiménez, Janire; Urkiza Melero, Leire
UPV/EHU. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Ramón y Cajal, 72
48014 Bilbo

Gero eta ezberdintasun handiagoak daude herrialde aberats eta txiroen artean, eta ez hori bakarrik, ere, herrialde berean gizarte-mailari dagokionez. Kontsumismo handia dago gizarte aberatsetan eta individualismo nabaria, gizarte sareak aldatzen joan direla. Honen ondorioak lan prekarietatea eta gizarte zaharkitzea dira. Arazo hauei aurre egiteko gizaritari hontaz informatu behar zaio, aldaketa politikoak suertatuz.

Giltza-Hitzak: Informazioa. Demokrazia. Berdintasuna.

Cada vez son mayores las desigualdades entre países ricos y países pobres, y no sólo eso sino también en lo que respecta al nivel social en cada país. Hay un gran consumismo en las sociedades ricas y el individualismo es evidente, mientras que las redes sociales se modifican. La precariedad laboral y el envejecimiento de la sociedad son sus consecuencias. Para hacer frente a estos problemas se debe informar de ello a la sociedad, buscando cambios políticos.

Palabras Clave: Información. Democracia. Igualdad.

Les inégalité entre pays riches et pays pauvres sont de plus en plus grandes, et non seulement cela, mais également en ce qui concerne le niveau social dans chaque pays. Il y a une grande surconsommation au sein des sociétés riches et l'individualisme est évident, cependant que les réseaux sociaux se modifient, avec pour conséquence la précarité du travail et le vieillissement de la société. Pour faire face à ces problèmes la société doit en être informée, et chercher des changements politiques.

Mots Clés: Information. Démocratie. Égalité.

Bizi garen munduan, arazo oso larriak daude. Haien artean, gure ikuspuntuaren arabera, nabarmena, mundua bi talde desberdinetan banatuta dagoela da; hau da, herrialde txiroetan eta aberatsuetan. Arazo hau, urteen poderioz gero eta adierazgarriagoa da, horrela aberatsak gero eta aberatsagoak dira eta txiroak gero eta txiroagoak dira. Guzti honek, hainbat arazo dakar, hurrengo lerroetan azalduko ditugunak.

Lehen esan dugun bezala, herrialde pobre eta aberatsen arteko ezberdintasunak areagotzen doaz, baina aipatu beharra dago ere, herrialde berean desberdintasun oso nabarmenak daudela gizarte-mailari dagokionez. Honekin, eta guztiok dakigun bezala, mundua mugitzen duten pertsonak boterea dutenak dira, dirudunak, politikariak, eliza... Honegatik, diru kopuru eskasa dutenek apurka-apurka bazter batean geratzen ari dira bizitzan. Esate baterako, herri batean familia batek etxebizitzarik baldin ez badauka, herrian bertan egingo diren edozein aldaketetan ezin izango du parte hartu eta honekin hartzen diren erabakiekin nahita nahi ez ados geratu behar izango da, zergak ordaintzen ez baititu.

Aberatsak aberatsagoak izanik, eta diru kopuru handiagoak irabaziz, kontsumismoa igotzen doa. Honekin batera, hurrengo hau gertatzen ari da: umek etxean ikusten dutenaren arabera jarraitzen dute, hau da, gurasoek markako arropa erosten badiete horretara ohituko dira, eta alderantziz. Hortaz, familian ikusten dutenaren arabera kultura eta balore maila bat izango dute.

Kontsumismoa jarraitu nahi dugunez diru kopuru zabala behar dugu eta honek, lanean ordu gehiago ematea eskatzen du aisialdiko denbora murriztuz. Hau dela eta, gure arteko harremanak gutxitzen doaz eta horrek dakar seme-alaba edukitzeko nahiak jaistea, zaintzeko denbora ez dugulako. Herrialde txiroetan kontsumismoa oso eskasa denez edo ia ez dagoenez eta bestalde bizitzako beharrak asetzeko soilik lan egiten dutenez, familiarekiko harremanak neurtzen dira jaiotze-tasak mantenduz edo igoaraziz. Herrialde aberatsetan, aldiz, gizarte zaharkitua bihurtzen ari da.

Beste aldetik, bizi-kalitateari dagokionez, lurralde pobretan oso txarra da bertako jendea lurralde aberetsetara inmigratzen du bizi-maila baten bila. Inmigrazio kopurua gero eta handiagoa da herrialde aberatsak txiroagoak bihurtuz, horren ondorioz langabezi-tasa igotzen ari da.

Gaurko gizartean aurkitzen dugun beste arazo bat, indibidualismoaren areagotzea da. Gizarte sareak eraldatzen joan dira gizarte indibidualistago bat sortuz, non bakardadea areagotzen doa. Gaur egun, gizabanako bakoitzak bere nahiak asetzera bilatzen du kolektiboaren beharrei erreparatu gabe. Adibidez, guretzat hain arrunta egiten zaigun egoera: autobusean joaterakoan kaskoekin musika entzuten joatea, ondoan jesarrira dagoenarekin hitz egin ordez. Honen adibidearen parekoa dugu, igogailu batean gaudenean; sartzen den

beste pertsonarekin hitz egin ordez mobilarekin ari tzen gara edota bakarrik igotzea erabakitzen dugu. Are gehiago, jendea elkarrekin topo egiteko lekuak gero eta murriztagoak dira, askotan tabernak izanez topagune hauen ordezkoak.

Azken arazo honetan, hirugarren adinekoek askoz errazago dute beraientzat egokitutako loka-lak udaletxeak ipintzen dituelako. Herrialde txiroetan, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen, kontsumismoa eta indibidualismoa ez dagoelako edota oso eskasa delako. Gizarte ez garatu horietan, errekurtsio falta dagoenez beraien arteko harremana askoz estuagoa da, elkarri laguntzea ezinbestekoa delako, beraz, kolektibo bezala jokatzeko dute.

Herrialde ez-faborezitueta lan-kopurua murrizta izanik kontratu gehienak finkoak egiten dira. Horrela gertatzen baldin ez bada, suposa dezakegu aberatsek beraien nahiei edo interesiei egokituz eta jarraituz mota desberdinetako kontratuak moldatzen joan dira. Egoera hau jasanda, askok beste herrialdeetara inmigratzea erabakitzen dute lan hobeago baten bila. Izan ere, herrialde horietara heltzen direnean, ohartzen dira agian lanik izango ez dutela edo izatekotan lan gogor bat izango dela. Askok prostituzio, drogen salmenta etabarri ekiten diote. Herrialde faborezitueta, sinatzen diren kontratu gehienak epe laburrekoak dira, honek emakumearen, hirugarren adinaren eta abarren esplotazioa areagotzea dakar. Gainera, herrialde batean zein bestean aberatsek lan erosoena eta diru gehien ematen dutenak burutzen dituzte, ordea, lan horiek izateko aukera ez dutenek lan gogorrenak hartu behar dituzte diru kopuru txiki baten truke.

Zoritarrez, bizi-kalitatea igo denez bizitza (zergak, prezioen igoera...) askoz garestiagoa suertatzen da; soldatak berdin mantenduz. Horregaitik lana edozein izanda ere, denok berdin ditugu behar izanak eta denok gure soldataren kopuru batekin ordaindu behar dugu gero eta zaharragoa den gizarte bat. Hau da, jaiotza-tasak gero eta baxuagoak dira eta bizi-itxaropena gero eta altuagoa da. Honek, gero eta zahar gehiago egotea eragiten du gazte gutxiago egonez, eta gazteek zaharrak mantentzea zailagoa bihurtuz; zaharrei pentsioa, osasun asegorua...ordainduz.

Herrialde aberatsetan, lan egoki bat izateko konpetentzia asko igo da eta horregaitik ikasten ari diren pertsonak prestakuntza gero eta zailagoa dute; hizkuntzak, masterrak, titulazioak... ikasi behar dituzte. Nahiz eta guzti honek lanpostu egoki bat ez ziurtatu. Honez gain, lanpostu bat aurkituz gero etengabeko prestakuntza bat beraien bizitzan zehar ezinbestekoa da etengabeko aldaketei aurre egiteko.

Bestalde, lan mundua eta gure bizitza pertsonala tartekatzerakoan ikus dezakegu askotan oso saila dela; arazo honen arrazoi nabarmena denbora eza da. Azken finean, lanean gutxi gora behera zortzi ordu minimoak egin behar badiugu gehituz lanea joateko ematen dugun denbora (gehienetan

etxetik urrun baitago) gehi ordu estrak sartu behar ditugunean normalean soldatak oso baxuak direla eta; horrek eragiten du etxera bueltatzerako orduan ezer egiteko nahia ez izatea ezta gure familiekin edo lagunekin harremanak edukitzea ere, nekea eta estresa dela eta. Hori gutxi bada, erabiltzen diren garraioak egunero milaka direnez, kaltetzen dute hiriak disfrutatzerako orduan, dena autoz beteta dagoelako.

Aipatutako arazo guztiei aurre egiteko, beharrezkoa da lehenik eta behin gizarteari honetaz informatzea, guztiok ohartu gaitezen arazo honen

larritasunez. Hasteko, nahitaezkoa da aldaketa politikoak suertatzea; demokratikoa den herrialdea, demokratiko bezala jokatzeko, hau da, guztiok berdina garen bezala eskubide berdina izan beharko genituzke, garrantzia eman barik: emakumea, zaharra, inmigrantea...; edonor izanda ere. Ekonomiari dagokionez aldaketa bat eman behar da baita ere, non aberatsen eta txiroen parekotasuna ematen den. Lortu behar dena, zera da, hirugarren munduko sinboloa desagertzea, mundu bakar bat garelako. Azkenik, arazo hauek sakondu ezker, konponbide batetara ailegatzeko pertsona guztien parte hartze aktiboa behar da, kontzientziario maila altua.